



EDIKTUA

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA OSATZEA (EBAZPENA-2016/102bis)

.Kontuan hartuta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 23. artikulua eta Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 52.2 artikulua, zeinek xedatzen baitu Tokiko Gobernu Batzarra osatuko dutela alkateak eta hainbat zinegotzik, haien legezko kopuruaren herena gainditu gabe, eta alkateak izendatu eta kargutik kentzen ahal dituela libreki, Osoko Bilkurari haren berri emanaz.

Kontuan harturik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 23.2 artikulua eta Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 53.1, zeinetan zehazten baita Tokiko Gobernu Batzarrari dagokiola, eskumen eskuordetuezin hori, alkateari laguntzea bere egitekoetan nahiz Osoko Bilkurak, alkateak edo legeek emandako bestelakoetan.

Kontuan izanik, Alkatetza honek ahalmena duela esleituak dituen hainbat eskumen Tokiko Gobernu Batzarraren esku uzteko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.3 artikuluan eta Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 14.ean xedatutakoaren arabera.

Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 23.artikuluak eta Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 43.2, 52 eta 53.2 artikulua ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honako honen bidez, EBATZI DUT:

1.-Tokiko Gobernu Batzarra osatzeko honako zinegotzi hauek izendatzea:

Alkate-presidentea: Eneka Maiz Ulaiar Zinegotziak: Silvia Marañon, Aitor Karasatorre Muguruza eta Lur Larraza.

2.- Adieraztea ezen Tokiko Gobernu Batzarra eratzeko bilkura apirilaren 21ean egingen dela, ostegunarekin, goizeko 9etan.

3.-Finkatzea ezen hileko bigarren asteko ostegunean jaieguna ez bada, egingen direla Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura arruntak, goizeko 9:00etan eta ordu bat beranduago bigarrenetan. Deialdiak posta elektronikoz jakinaraziko dira 24 ordu lehenago.

Alkateak ohiko bilkuraren data eta ordua aldatu ahal izango du, baita bertan behera utzi ere, arrazoituta, Aste Santua, Eguberriak edo bestelako ospakizunak dela medio. Era berean, bilera asteen bertan edo hurrengoan atzeratu edo aurreratu ahal izango du, aurreikusitako eguna ezeguna denean edo bestelako arrazoiengatik, dagokion moduan justifikatuta.

4.-Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 23.2 artikulua eta Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 53.1 artikulua zuzenean esleitzen dizkieten laguntza eta aholkularitza eginkizunak bereganatuko ditu Tokiko Gobernu Batzarrak, baita legeek zuzenean esleitzen dizkietenak ere eta, Alkatetza honek eskuordeturik, jarraian zerrendatzen diren eskudantziak hartuko ditu:

a) Lan eskaintza publikoa osoko bilkuran onetsitako aurrekontuaren eta plantillaren arabera

onestea; langileak hautatzeko proben eta lanpostuak betetzeko lehiaketen oinarriak onestea.

b) Zehazki osoko bilkuran onetsi beharrekoak ez diren planeamendu orokorra garatzeko, hirigintza kudeatzeko eta urbanizazio proiektuetarako planeamendu tresnak onestea.

c) 40.000 eurotik gorako obren proiektuak eta 20.000 eurotik gorako zerbitzuak onestea, kontratatazioa egin edo emateko eskumena duenean (eta aurrekontuan sartuta daudenean. (BEZa kanpo)

5.-Alkateak eskuordetu ez dituen eskudantziez baliatuz ematen dituen ebazpenen balio bera izanen dute Tokiko Gobernu Batzarrak hartzen dituen erabakiek; nolana ere, erabakiak Batzarraren funtzionamendurako arauekin bat hartu beharko dira.

6.-Eskuordetza hori ez da ezeztatuko Alkatezaren titularrak edo Tokiko Gobernu Batzarraren osaera aldatze hutsagatik. Eskuordetza ezeztatu edo aldatzeko, emateko eskatzen diren bezalako formalitateak bete beharko dira.

7.-Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki oholean argitaratzeko agintzea, Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 44.2 artikuluan ezarritako ondorioak izan ditzan. Hala ere, eskurantzaren eskuordetzak ondorioak sortuko ditu dekretu honen dataren biharamunetik aurrera.

8.- Banan-banan jakinaraztea ebazpen honek ukitutako zinegotzietan, kasua bada kargua har dezaten Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 46. artikuluan lege beraren 52.4 artikuluari dagokionez ezarritako ondorioetarako. Dena den, erabaki honek indarra hartuko du sinatzen den egunaren biharamunetik aitzina.

Alkateordearen eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapenek indarra hartzeko, zinegotzi interesdunak onartu beharko ditu. Hartara, onartutzat hartuko dira, hiru egun baliodunen buruan, behar den jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita, kontraktorik espresuki adierazten ez badu.

9.-Erabaki honen berri ematea Udaleko Osoko Bilkurari bere edukia ezagutzeko

Etxarri Aranatzan, 2016ko maiatzaren 2an

ALKATEA
Eneka Maiz Ulaiar